

ARNAS INFЕКZIO AKUTUAREN (AIA) ZAINТZA **Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE)**

2025-2026 denboraldia
(2025eko irailaren 29tik 2025ko irailaren 27ra)

6. astea (2026ko otsailaren 2tik 8ra)


Gripearen eta bronkiolitisaren tasak oinarritzko mailan (inter epidemikoa) mantentzen dira, beheranzko joerarekin. COVID-19aren tasak baxua izaten jarraitzen du.

- Lehen mailako arretako (LMA) sarean AIA tasa 362,3 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (398,7/100.000 aurreko astean).
- Lehen mailako arretan, gripe-sindromearen eta bronkiolitisaren tasek behera egin dute aurreko astearekin alderatuta. COVID-19aren tasa baxu mantentzen da.
- Mikrobiologiako laborategira bidalitako 66 lagin jagoleen % 69,7 baieztatu da, 10 gripe-birus, 5 ABS eta SARS-CoV-2 bat detektatu direlarik.
- Osakidetzako ospitale-sarean, AIA larriaren tasa 16,7 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (16,4/100.000 aurreko astean).
- LMAko AIA-tasa intentsitate maila baxuan mantentzen da. Bronkiolitisaren (< 2 urte) tasa eta larrialdietako gripe-sindromearena oinarritzko mailan mantentzen dira (balio inter epidemikoak).
- EAEko Informazio Mikrobiologikoko Sisteman, aste honetan, 225 ABS, 87 gripe-birus eta 6 SARS-CoV-2 erregistratu dira.

Zaintza sindromikoa


Zaintza honen bidez, LMA sareko AIA kasuen tasa estimatzen da Historia Kliniko Elektronikokoan jasotako informazioaren bitartez eta GNS-10 kodeak erabiliz. Aste honetan hautemandako AIAREN intzidentzia-tasa 100.000 biztanleko 362,3 kasukoa izan da (398,7/100.000 aurreko astean). Lurralde historikoka, tasa 291,2/100.000 izan da Araban, 353,8/100.000 Bizkaian eta 408,7/100.000 Gipuzkoan.

AIAREN intzidentzia-tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Lehen mailako arreta-sarea. 2025-2026, EAE




Adin-taldearen arabera, AIAREN tasa altuena urte batetik beherakoen adin-taldean eman da 3383,4 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 1-4 urtekoen eta 5-14 urtekoen adin-taldeak kokatzen direlarik 100.000 biztanleko 1546,0 eta 439,7 kasurekin, hurrenez hurren.

AIAREN intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera
Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE



AlAekin lotutako Prozesu Arin Automugatuen (PAA, *Hotzeria arrunta* eta AlAren sintomaren bat duen *Sukarra*¹) zaintzaren helburua erizaintzako langileek artatzen dituzten prozesu horien bilakaera ikustea da. Aste honetan tasa 100.000 biztanleko 140,4 kasukoa izan da (169,5/100.000 aurreko astean).



Erakunde Sanitario Integratuko (ESI) intzidentziari dagokionez, tasek behera egin dute ESI gehienetan.


AlAren intzidentzia-tasak eta tasen arrazoia ESlaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE

ESI	Tasa 6. astea	Tasa 5. astea	Tasen arrazoia (% 95 KT)
Arabako ESI	316,3	337,8	0,94 (0,86-1,02)
Arabar Errioxako ESI	526,4	518,0	1,02 (0,71-1,45)
Barakaldo-Sestaoko ESI	320,4	375,4	0,85 (0,75-0,97)
Barrualde-Galdakaoko ESI	378,6	421,2	0,90 (0,83-0,97)
OSI Bilbo-Basurtuko ESI	374,4	403,5	0,93 (0,86-1,00)
Ezkerral.-Enkart.-Gurutzetako ESI	328,1	403,0	0,81 (0,73-0,91)
Uribeko ESI	298,6	298,6	1,00 (1,00-1,00)
Bidasoako ESI	322,4	371,2	0,87 (0,73-1,03)
Debararrenako ESI	388,6	431,8	0,90 (0,77-1,06)
Debagoienako ESI	403,1	403,1	1,00 (1,00-1,00)
Donostialdeako ESI	365,2	429,2	0,85 (0,79-0,92)
Goierri-Urola Garaiaiko ESI	508,7	537,7	0,95 (0,84-1,07)
Tolosaldeako ESI	522,0	505,0	1,03 (0,89-1,20)

¹ Informazio gehiagorako kontsultatu [AlAren jagoletzaren metodologia](#)

LMAn, gripe-sindromearen tasa 6,8 kasu 100.000 biztanleko balioraino jaitsi da (10,6/100.000 aurreko astean). Bronkiolitisaren tasa (2 urtetik beherakoetan) 100.000 biztanleko 230,9 kasukoa izan da (332,0/100.000 aurreko astean) eta COVID-19arena baxu mantentzen da 100.000 biztanleko 0,3 kasutan (0,5/100.000 aurreko astean).


Tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE



Lagin jagoleen diagnostiko mikrobiologikoa

Zaintza honetan, astero, AIAren sintomak dituzten kupo jagoleetako pazienteen artean gutxienez bost kasu hautatzen dira sistematikoki, eta diagnostiko mikrobiologikorako lagin bat hartzen zaie. Aste honetan, AIArako erreferentziako mikrobiologiako laborategian 66 lagin jagole aztertu dira eta horietatik % 69,7 baieztatu dira. 17 gripe-birus (10 AH3 eta 7 AH1), 5 ABS eta SARS-CoV-2 bat atzeman dira. 13 errinobirus eta 9 urtaroko koronabirus ere detektatu dira.

AIA intzidentzia-tasa LMAN eta sare jagolean detektatutako arnas birus kopurua,
aste epidemiologikoaren arabera. 2025-2026, EAE



Gripe-birusaren positibotasunak gora egin eta % 25,8an kokatu da aste honetan (% 16,1 aurreko astean). ABSren positibotasuna % 7,6raino jaitsi da (% 14,5 aurreko astean) eta SARS-CoV-2arena % 1,5ekoa izan da (% 0,0 aurreko astean).

Positibotasunaren ehunekoa mikrobiologiako laborategira bidalitako lagin jagoleetan arnas birus motaren arabera. Sare jagolea. 2025-2026, EAE


	6. astea		5. astea		2025-2026 hasieratik	
	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)
Influenza	17	25,8	10	16,1	373	34,3
SARS-CoV-2	1	1,5	0	0,0	14	1,3
ABS	5	7,6	9	14,5	82	7,5
Metaneumobirus	0	0,0	4	6,5	10	0,9
Parainfluenza	6	9,1	3	4,8	30	2,8
Adenobirus	4	6,1	1	1,6	12	1,1
Errinobirus	13	19,7	11	17,7	200	18,4
Urtaroko CoV	9	13,6	6	9,7	61	5,6
Enterobirus	0	0,0	0	0,0	8	0,7

AIA larria (AIAL) Osakidetzako ospitale-sarean

Zaintza sindromikoa


AIAL (arnas infekzio akutu larria) kasuak Osakidetzako ospitale-sarean artatutako AIaren prozesu klinikoak dira, GNS-10 kodeen bitartez astero Historia Kliniko Elektronikotik eratortzen direnak. AIAL tasa 16,7 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (16,4/100.000 aurreko astean), 15,9/100.000 gizonetan eta 17,5/100.000 emakumeetan.

AIAL tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, EAE




Adin-taldearen arabera, AIAL tasa altuena urte batetik beherakoen adin-taldean eman da 100.000 biztanleko 65,3 kasurekin, ondoren 64 urtetik gorakoen eta 1-4 urtekoen adin-taldeak kokatzen direlarik 100.000 biztanleko 54,8 eta 16,7 kasurekin, hurrenez hurren.

**AIALren intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera.
Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, EAE**



Gripearen diagnostiko-kodeekin (J09-J11) erregistratutako ospitaleratzeen tasa 0,8koa izan da 100.000 biztanleko (1,0/100.000 aurreko astean), ABSren kodeekin (J12.1, J20.5 y J21.0) ospitaleratutako tasa 2,3koa 100.000 biztanleko (2,7/100.000 aurreko astean) eta COVID-19aren kodearekin (U07.1) ospitaleratutakoena 0,0 kasukoa 100.000 biztanleko (0,0/100.000 aurreko astean).

**Tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, EAE**




AIAL laginen diagnostiko mikrobiologikoa

Atal honetan, Osakidetzako ospitale-sarean AIAL kasuei egindako analisi birologikoen emaitzak erakusten dira. SARS-CoV-2aren positibotasuna % 0,3koa izan da (% 0,0 aurreko astean). Gripe-birusaren positibotasuna % 6,0koa izan da aste honetan (% 7,1 aurreko astean) eta ABSrena % 24,2an kokatu da (% 25,8 aurreko astean).

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko lagin kopurua eta hauen positibotasuna (%) AIAL kasuen laginetan arnas birus motaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, EAE

	6. astea		5. astea		2025-2026 hasieratik	
	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)
SARS-CoV-2	301	0,3	293	0,0	5800	1,7
Influenza	336	6,0	326	7,1	5934	27,2
ABS	306	24,2	295	25,8	5371	16,7

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko AIALen laginen positibotasun portzentaia arnas-birus motaren eta aste epidemiologikoen arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, CAE




Atalase epidemikoak eta intentsitate-mailak

Epidemia Mugikorren Metodoa (*Método de Epidemias Móviles*, MEM) ezarri da Euskadin arnas infekzio akutuek (AIA) zaintzeko, atalase epidemikoak eta intentsitate-mailak zenbatesteko. Horri esker, modu objektiboan identifika daitezke urtaroko epidemien hasiera eta amaiera, eta haien intentsitatea sailkatu.


Lehen mailako arretako AIAren zaintzari dagokionean, atalase epidemikoa 2025/40 astean gairitu zen eta gaur egun tasa intentsitate maila baxuan kokatzen da.

**AIaren epidemiaren intentsitatea serie historikoarekin alderatuta.
Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE**




Gripe-sindromearen, ospitaleetako larrialdietatik ateratako datuen arabera, atalase epidemikoa 2025/42 astean gainditu zen, 2026/05 astean gaur egun mantentzen den oinarritzko mailara bueltatuz.

**Gripearen epidemiaren intentsitatea larrialdietan serie historikoarekin alderatuta.
Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, CAE**



Azkenik, 2 urtetik beherakoen lehen mailako arretako bronkiolitiden diagnostikoei dagokienez, atalase epidemikoa 2025/48 astean gainditu zen, 2026/05 astean gaur egun mantentzen den oinarritzko mailara bueltatuz.

Bronkiolitisaren (<2 urte) epidemiaren intentsitatea serie historikoarekin alderatuta. Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE




Intentsitatea serie historikoarekin alderatuta: ■ Oinarrizko egoera ■ Baxua ■ Ertaina ■ Altua ■ Oso altua

Arnas birusen detekzioak IMSn

Zaintza honetan, Osakidetzako Diagnostiko Biologikoko Sareko mikrobiologiako zerbitzuek zirkuitu jagoletik kanpo jakinarazitako gripe-birusaren eta ABSren lagin positiboak biltzen dira. Sistema honetan 225 ABS, 87 gripe-birus eta 6 SARS-CoV-2 detektatu dira azken astean.

Aste honetan detektatutako 87 gripe-birusetatik, 35 A motakoak izan dira, 25 A(H3), 24 A(H1)pdm09 eta 3 B motakoak. 2025/40 astetik 8455 detekzio erregistratu dira, 8419 (% 99,6) A motakoak eta 36 (% 0,4) B motakoak. Azpitipatutako A motako 4425 birusetatik, 2669 (% 60,3) A(H3) eta 1756 (% 39,7) A(H1)pdm09 izan dira.

Asteko SARS-CoV-2, influenza eta ABS detekzio kopurua. IMS. 2025-2026, EAE



Metodologiari eta beste aspektu batzuei buruzko informazio gehiago [Osasun Saileko webgunean](#) eta ondorengo esteka hauetan: [SiVIRA](#) (estatukoa), [Flu News](#) (Europa, gripea), [FluNet](#), (Mundua, gripe), [OPS](#) (Amerika, gripea), [CDC](#) (AEB).

2026ko otsailak 11

Zaintza Epidemiologikoa
Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza